

Analisi zorrotza eta dibertimendua sarituak

Eguneroko lanaren bidez euskal komunitate aberatsagoa eraikitzen laguntzen duen hainbatek jaso du ARGIA Saria aurten ere: Imanol Murua, *Mihiluze* telebista saioa, *Arratsaldekoa* irratsaioa, euskarazko Wikipedia, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Emilio Lopez Adanek.

IURE ALTZIBAR

► Prentsa idatzia Imanol Murua



SARA SANTOS

zen *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten arte. *Berría* sortu zenetik bertako politika sailean idazten du.

Horretaz idazten hastearren arrazoietakoa bat halabeharra izan zela badio ere, bertan lortu du arrakasta. Egunero egunkarian egindako lana blogera ere eramane zuten. “Esperimentu polita izan zen. Blogak norberaren irudipenak, galderak eta zalantzak agertzeko askatasuna ematen du”, aitortu digu. Bi urte igaro ostean utzi zion bere gunea elikatzeari, agortua ikusi zuelako bere burua.

Garbi du saririk handiena irakurleak izatearena dela, baina beti eskertzen ditu bestelakoak ere. Azken bi urteotako bigarren saria du hau eta bereziki estimatzen duela onartu digu, bertan hasi zelako kazetaritzaren oinarriak ikasten.

► Telebista *Mihiluze*

Gauero afalorduan agertzen zaizkigu telebistan Ilaski Serrano, Kike Amonnarriz, lehiakideak eta gaueroko jolasak. Pantailaren bestaldean, sofan eserita, jolasteko prest dagoen familia. Beraz, hasieratik izan zuten helburuetako bat lortu dute: adin eta euskara maila ezberdina duten pertsonak etxetik ere jolastu ahal izatea. “Gure obsesioetako bat da”, aitortu digu Kike Amonnarrizek.

Izugarrizko arrakasta izan du saioak, zalantzarik gabe. 2006ko urtarrilean hasi zenetik 500 pertsona baino gehiago lehiatu dira heldu zein haurrekin eginiko saioetan. Are gehiago, parte hartu nahi dutenen zerrenda oso luzea da.

ARGIAN kaleratu zuen lehen artikulua 1987an, 21 urte zituela. Oraindik ikasketak amaitzeko zituen, baina irratian ere lan txikiak egindakoa zen. Zarauzko *Arraio* irrati librean izan zuen horretarako aukera, jaioterriko hedabidean alegia. Lehen artikuluz geroztik hasi zen kazetaritza egun ulertzen duen modura barneratzen.

Bilboko eta Donostiako ARGIAN ibili ondoren *Euskaldunon Egunkaria* ren sorreran parte hartu zuen. 1994an atsedenditxo bat hartu bazuen ere ez zen geldirik egon. Egindako bi bidaiaren harira bi liburu idatzi zituen: *Suetena Belfasten* eta *Palestina zauritua*. Bost urte beranduago itzuli zen *Egunkariara* eta orduan hasi zen politika sailean. 2001ean politika kronista egin



lazio Gabonetan haurrekin egindako *Mihiluze* berezia.

ETB



SARA SANTOS

Arratsaldekoa irratsaioko hiru esatariak: Arantxa Iturbe, Nekane Peñagarikano eta Tere Beloki.

Zer da zer?, Potokumeak, Esamesak... Probetako batzuk baino ez dira. Zazpi dituzte guztira eta Amonnarrizek azaldutakoaren arabera, lehiakide bakoitzak ezberdin bat du gogokoen. Horregatik diseinatu dituzte hain jolas ezberdinak.

Kalean ere nabari dute jendeak *Mihiluze* jarraitzen duela eta oso iritzi positiboak jaso dituzte. ARGIA Saria jaso berrian pozik topatu dugu Kike Amonarriz: "Euskal kulturaren gune garrantzitsutik jasotakoa da eta orain arte egindako lanaren esker publikoa jasotzen dugu honekin".

Gure hizkuntza komunikatzeko baino gehiagorako erabil daitekeela erakutsi digute, baita euskara eta umorea uztartuz jolastu gaitezkeela ere.

tak Euskadi Irratiko tarte sarituari eskainiak.

Duela urte batzuk ezagutu zuten elkar Jaime Otamendirekin batera egindako *Goizean behin* saioan. Urte asko han pasa ondoren iritsi zitzairen *Arratsaldekoa* gidatzeko aukera. Kulturari arreta berezia eskaintzen dion saioa da, batetik, programazioan horren beharra zegoelako eta bestetik beraien nahia zelako. "Hor kokatu ginen eta espezializatzen hasi ginen", azaldu digu Arantxa Iturbek.

Baina kultura ulertzeko bestelako modua dutela erakusten dute arratsaldero. Euskarazko kultur produkzioari jarraitu eta horien aurkezpena egiten dute, kolaboratzaile sarearen lagun-

tzaz. Hauen garrantzia azpimarratu nahi izan du Iturbek: "Asko gustatzen zaigu jendeak duenetik ematea".

Egunero egiten duten lanagatik oso pribilegiatuak sentitzen dira, gus-tuko lanean baitabilta. Hori saritzea, berriz, luxua da beraien esanetan.

Internet Wikipedia euskaraz

Interneteko erabiltzaileen artean gutxi izango dira Wikipedia Entziklopedia askea ezagutzen ez dutenak. Nahikoa da edozein bilatzaile-tan informazioa aurkitzen saiatzea hizkuntza bateko edo besteko Wikipedia agertzeko. Ingelesezkoa izan zen sortutako lehena, 2001ean. Hasieratik izan zen eleaniztasuna xedea eta ezin ukatu lortu ez dutenik. Euskarazko Wikipediak ere badu bere txokoa sarean. Une honetan 23.540 artikulutik gora ditu. Kontsultak ere asko dira baina Arkaitz Zubillagak, administratzaileetako batek, azaldu digunez, "horietatik portzentaje txiki batek baino ez du hartzen parte: %5ak". Hala ere, ekarpen txiki asko daudela onartu digu.

Jasotako saria egindako lanaren eskertzat hartzen dute, beraien lana erabili eta eskertzen dutenaren erakusgarritzat. Hori da beraien irabazi bakarra eta arrakastaren oinarria. Nahi duenak informazioa doan esku-ratu eta erabiltzeko tresna egokia du <http://eu.wikipedia.org> helbidean.

Irratia Arratsaldekoa

Dinamikotasuna, kultura, gaurkotasuna, eztabaidagunea... Hitz asko erabil daitezke *Arratsaldekoa* saioa deskribatzeko. Hiru emakume dira astelehenetik ostiralera irratia- ren uhinetatik gure etxe zein lantokietan sartzen direnak: Arantxa Iturbe, Nekane Peñagarikano eta Tere Beloki. Hogei urte baino gehiago dar-matzate irratian hiruek, azken bos-



Publizitatea Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



HPS

Aritz Aranburu surflariaren amona da HPSk prestatutako publizitateko protagonistia.

Aritz Aranburu surflaria izan da bukatu berri dugun urteko kirol arloko protagonistetako bat. Baina ez da familiako ospetsu bakarra, ezin baitugu bere amona ahaztu. Lisatzeko mahaiaren gainean bilobaren mugimenduak errepikatu eta “Aupa Aritz” esanez ezagutu dugu. Nork ez du ikusi iragarkia?

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatutako kanpaina erakargarria bada ere mezuan du mamia. Euskal komunikabideetan guztientzako eskaintza zabala eta kalitatezkoa dagoela adieraztea du helburu. Miren Dobaran, HPSko euskara sustatzeko zuzendariaren esanetan ohorea da ARGIA Saria jasotzea. Baina hausnarketarako hitzak ere utzi dizkigu: “Badakigu urtean zenbat euskaldun berri gehiago dauden eta hedabideen kontsumoa ez da hazten. Hor hutsunea dago eta hausnartu behar dugu zergatik ez duten euskaldunek euskarazko hedabiderik kontsumitzen”.

Sariaren muinera itzuliz, argi dago euskarazko komunikabideak ez saltzearen arazoia ez dela eskaintza falta. Beraz, beste leku batzuetan jarraitu beharko dugu erantzun bila.



HPS

Merezimenduzko saria Emilio Lopez Adan, *Beltza*

“ARGIAK emandako beste adiskidetasun marka bat da” esanez definitu digu Emilio Lopez Adanek jasotako saria. Adiskidetasuna baino zerbait gehiagotatik jaso du saria, ordea, eta zerikusirik izango du euskarazko komunikabideetan izandako partehartzeak.

1946an jaiotako gasteiztar hau 28 urte inguru zituela hasi zen hedabideetan kolaboratzen eta oraindik ere horretan segitzen du, lanbidez ginekologoa izanagatik. Hasierako garai haietan ez zegoen kazetaritza ikasketarik Euskal Herrian eta ondorioz euskal kazetari profesional gutxi zeuden. Aldizkarietan idaztea mili-

tantzia kontua zen eta Emilio Lopezek ere hala azaldu du: “Ez naiz kazetaria, militantea izan naizela esan liteke”.

Idaztea atsegin duenik ezin du ukatu eta horren erakusgarri dira eginko literatur lanak eta ikerketa historikoak. Prentsa ere izan du iritziak agertzeko euskarri, irriti eta telebista ahaztu gabe, noski. Telebista da gutxien ezagutzen duena eta nabari da, kazetaritzaren arlorik atseginenaz galdetzerakoan prentsara jotzen baitu berriro: “Aldizkari batzuetan dagoen espiritua dut atsegin; jendeari adierazten uzteko eta adierazpenak sustatzeko dagoen askatasuna”. ■



SARA SANTOS